



1. Erreparatu fitxari eta dituen atalei.



2. Aukeratu zure inguruko elementu bat (adibidez, auzoko igerilekua) eta pentsatu neur dezakezun magnitude bat (adibidez, luzera).




3. Osatu fitxaren lehen bi atalak:


Goiko aldean, elementuaren deskribapena, magnitudea eta aukeratzeko neurri-unitateak jarri behar dituzu; estandarrak izan daitezke (adibidez, metroak) edo ez (adibidez, urratsak).

Beheko ezkerreko aldean zenbatespen bat ipini behar duzu (adibidez: «Nire ustez igerilekua 40 urrats inguru da luzeran»), eta hori nola pentsatu duzun azaldu, egin duzun zenbatespena justifikatzeko.


4. Pentsatu nola neur zenezakeen aukeratu duzun magnitudea esperimentu bidez, bilatu horretarako behar dituzun tresnak eta planifikatu prozesu osoa.



5. Fitxaren beheko eskuin aldean osatzeko egin duzun zenbatespena neurtu eta egiaztatu behar duzu.



6. Nahi baduzu, fitxa gehiago inprimatu edo kopiatu ditzakezu, eta lagunekin edo senideekin jolastu. Bakoitzak bere zenbatespena egin eta denok batera egiazta dezakezue gero, benetako neurrirra nor hurbildu den gehien ikusteko. Zenbat eta gehiago praktikatuz, orduan eta zehatzagoak izango zarete!



Zer beharko duzu erronka honetarako?

- Erronkaren fitxa.
- Aukeratzeko dituzun magnitudeak neurtzeko neurketa-tresna egokiak (hautazkoa), adibidez: neurketa-zinta, termometroa, baskula, kronometroa, angulu-garraigailua, hauspeakin-ontzia, etab.


Zer landu nahi dugu?

- Eguneroko magnitudeak konparatzea.
- Eguneroko magnitudeen zenbatespenak egitea, hurbil ditugun erreferenteetatik abiatuta.
- Testuinguru bakoitzean egokiak diren neurketa-unitate ez estandarrak (ahurrak, oinak, baldosak, edalontziak, etab.) eta estandarrak (metroak, zentimetro karratuak, kilogramoak, graduak, etab.) erabiltzea.
- Neurketa-tresna egokiak erabiltzea.
- Neurketa-prozesu bat planifikatzea, aurrera eramatea eta deskribatzea.

Eman iezaguzu zure sorkuntzen berri sare soziale-tan traol-hitz hau erabiliz:
#Innovamat-Summer. Gozatu uda matematiko honetaz!

4. erronka: Iritzira kalkulatu dugu neurria

Zer elementu da hemengo



Zein magnitudeetan erreparatuko

- | | | |
|-----------------------------------|--|--------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Luzera | <input type="checkbox"/> Masa (pisua) | <input type="checkbox"/> Tenperatura |
| <input type="checkbox"/> Azalera | <input type="checkbox"/> Angeluen zabalera | <input type="checkbox"/> Denbora |
| <input type="checkbox"/> Bolumena | <input type="checkbox"/> Edukiera | <input type="checkbox"/> _____ |

Zer unitaterekin (estandarra ala ez estandarra) neurtuko dugu?

Zenbatespena

Nire ustez...

Justifikazioa:

Errealitatea

Egiaztatu dut...

Neurtzeko emandako urratsak:

